

**2008ko  
ARETXABALETako  
Kale Erabileraren Neurketa**

2008ko Apirila



**Kale Neurketa**<  
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b>	<b>- 3 -</b>
1.1-	Erabilera neurtzearen beharra	3
1.2-	Euskal Herriko Neurketa	3
1.3-	Erabilera datuen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan	4
<b>2</b>	<b>NEURKETA NOLA EGIN DUGUN</b>	<b>- 5 -</b>
2.1-	Neurketa egunak eta orduak	5
2.2-	Aztertutako zonaldeak eta neurketarako ibilbideak	5
2.3-	Neurketarako metodologia	6
<b>3</b>	<b>NEURKETAREN EMAITZAK</b>	<b>- 9 -</b>
3.1-	Emaizta orokorrak	9
3.2-	Erabileraren bilakaera	10
3.3-	Zonaldekako emaitzak	13
3.4-	Adin taldekako emaitzak	16
3.5-	Adin taldekako erabileraren bilakaera	17
3.6-	Neurketa egunen araberako emaitzak	20
3.7-	Sexuaren araberako emaitzak	20
3.8-	Haurren presentziaren eragina	22
3.9-	Haurren eraginaren bilakaera erabileran	24
<b>4</b>	<b>HIZKUNTZA GAITASUNA ETA BILAKAERA HERRIAN</b>	<b>- 25 -</b>
4.1-	Aretxabaletako ezagutza (2001)	25
4.2-	Ezagutzaren bilakaera	27
4.3-	Adin taldekako ezagutzaren bilakaera	28
<b>5</b>	<b>EMAITZEN AZTERKETA ETA ESANAHIA</b>	<b>31</b>
5.1-	Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena	31
5.2-	Erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera	32
5.3-	Eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuekiko alderaketa	34
<b>6</b>	<b>DATOZEN URTEETARAKO <i>BEGIRA</i> PROSPEKZIOA (2008-2018)</b>	<b>36</b>
<b>7</b>	<b>ERANSKINAK</b>	<b>38</b>
7.1-	<i>Txillardegiren</i> eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa	38
7.2-	Neurketa arauak eta oharrak	43
7.3-	Fitxak	46
7.4-	Datu nagusien irakurketa (laburpena)	49

# 1 SARRERA

Soziolinguistika Klusterrak (aurretik SEI Elkartek) Aretxabaletan egiten duen laugarren neurketa da 2008ko hau; aurretik, 2001 eta 2003an SEIk egin zituen lehenengo bi neurketak udalerrian eta Soziolinguistika Klusterrak ondorengoa egin zuen 2005ean. Txosten honek 2005ekoaren egitura berdina jarraitzen badu ere, datu berriak eskaintzen dira, izan ere 2008ko erabilera datuak aurreko neurketetakoekin alderatu ahal izango ditugu.

## 1.1 Erabilera neurtzearen beharra

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen neurketa, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Hala ere, herrian euskararen normalizaziorako ahaleginen ondorioak eta denborarekin ematen diren aldaketak eguneroko erabileran islatzen dira; gure herriko esparru ezberdinetan, besteak beste, herriko kaleetan. Kale erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kontuan izan behar dugu, hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak direla (eroldakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen dizkizue. Horretarako, gainera, oinarri metodologiko sendoa dugu. Gaur egun Soziolinguistika Klusterra arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta horrez gain zenbait udalerritan ere egin ditugu honen antzeko neurketak (esate baterako, gaur egunera arte 40 bat herritan burutu ditugu neurketak, SEI Elkartearen izenean eta beste hainbeste Soziolinguistika Klusterraren izenean).

## 1.2 Euskal Herriko Neurketa

Aretxabaletan egin dugun Kale Erabileraren Neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa Orokorra 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik lau urtez behin errepikatu da (2001etik aurrera bost urtez behin): 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an ere egin da. Azken neurketan bezala, hemendik aurrerakoak ere bost urtean behin egingo dira (besteak beste, eroldako datuekin bateratze aldera). Neurketa horretan Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hemendik beherako batzuetan egiten dira neurketak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean

hizketan. 2006ko neurketan ikerketa sendotzeko hainbat aldaketa metodologiko egon dira. Guztira 63 neurtu dira, eta erabilera datuak fitxa bakarrean jaso dira (aurreko neurketetan ez bezala). Fitxa honetan informazio baliagarriena ahalik eta egokien jasotzeko lan handia egin da.

1998an EKB desagertu ondoren, SEIk hartu zuen bere gain Neurketa Orokorra egitearen ardura eta 2001eko azaroan bertan egin genuen IV. Neurketa. Modu horretan, beraz, SEIk orain arteko neurketen oinarri metodologikoa eta esperientzia jaso du, eta orain, Soziolinguistika Klusterrak oinarri kontrastatu hau erabiliz egin du 2006an V. Kale Neurketa ere.

### 1.3 Erabilera datuen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan

Kale Erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horiengan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek asko errazten digu ondoren lehentasunak non dauden identifikatzeko. Gainera, Kale Erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

Alde horretatik, Aretxabaletan 1990etik bederatzi euskararen erabileraren neurketa egin direnez, 2008ko Kale Erabileraren Neurketako datuak aurreko neurketetan jasotako datuekin alderatu eta dagokien interpretazioa egin ahalko dugu. 2008ko Kale Erabileraren Neurketa honetan, 2001, 2003 eta 2005eko neurketen diseinu berbera jarraitu da, aurreko urteetan apur bat ezberdina izan baitzen. Hala ere, 2008ko Kale Erabileraren Neurketa honetan, 1998an, 2000n, 2001ean, 2003an eta 2005ean erabilitako diseinu bera erabiltzen saiatu gara. Izan ere, urte ezberdinetako neurketen jarraipen bat egiteak eta datuak konparatzeak du interesa, erabilerari dagokion bilakaera ezagutze aldera.

## 2 NEURKETA NOLA EGIN DUGUN

### 2.1 Neurketa egunak eta orduak

Aretxabaletan Euskararen Erabileraren Kale Neurketa 2008ko otsaila eta martxoa artean burutu da: otsailaren 25ean (astelehena), 27an (asteazkena), 29an (ostirala), eta martxoaren 8an (larunbata) hain zuzen.

Guztira ondorengo koadroan dituzuen bost neurraldiak egin dira:

Otsailak 25, astelehena	11:00 - 13:00
Otsailak 27, asteazkena	18:00 - 20:00
Otsailak 29, ostirala	22:30 - 00:30
Martxoak 8, larunbata	11:00 - 13:00
Martxoak 8, larunbata	18:00 - 20:00

### 2.2 Aztertutako zonaldeak eta neurketarako ibilbideak

Aretxabaletan bi ibilbide nagusitan egin da neurketa. Aztertutako ibilbideek mutur batetik bestera zeharkatzen dute herria, ahalik eta hiztun kopuru adierazgarriena eta gunerik jendetsuenak biltzea izan baita gure asmoa. Erdialdean, azokako eta gaueko giroko datuak ere bereizita jaso ditugu aurreko urteetako datuekin alderatuta, bilakabidea zein izan den jakite aldera.

Otsailaren 27ko eta martxoaren 8ko neurraldiak honako zirkuituetan oinarritu dira:

- 1. ibilbidea:** San Miguel/Bedarreta auzoa; Santa Krutz ondoko pasealekutik Errekabarren kalea hartu, jarraian Loramendi kalea eta Belorrieta auzora; eta Markole auzoa eta herri irteerako etxeak.
- 2. ibilbidea:** Otalora kalean bidegurutzetik hasita, herriko plaza ingurua, Durana kalea eta Mitarte.

Otsailaren 29ko neurraldia, berriz, zirkuitu honetan burutu da:

- 2. ibilbidea:** Otalora kalean bidegurutzetik hasita, herriko plaza ingurua, Durana kalea eta Mitarte.

Otsailaren 25ean, bi zonaldetan banatu da neurketa:

**Azokan** (Gernika plazan) ordubetez egin da neurketa.

- 2. ibilbidea** luzatu da ondoren neurraldi hau: Mitarte eta Durana kalea, herriko plaza ingurua eta Otalora kalean bidegurutzeraino.

## 2.3 Neurketarako metodologia

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, etab. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitu ditugu, eta hauen hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izan da; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

### Neurtzaileak

Kale neurketa hauek egiteko Soziolinguintika Klusterreko bost neurtzaile profesionalak eta bi herritarrek hartu dute parte: Jokin Bereziartua, Nagore Llodio, Oihana Jausoro, Koldo Diaz eta David Rincon izan dira Soziolinguintika Klusterreko neurtzaileak. Herriko laguntzaileak, berriz, Aintzane eta Larraitz Iñurrategi izan dira. Neurtzaile hauek neurketa horretarako beharrezko formazioa jaso dute Soziolinguintika Klusterraren eskutik, eta bertako irizpideei jarraiki bildu dituzte behatutako errealitateari buruzko datuak.

### Behaketa zuzena

Neurketa hauen ikerketa metodologia behaketa zuzena izan da. Hau da, hiztunak neurketaren momentuan erabiltzen duen hizkuntza jaso dute zuzenean, ezertxo ere galdetu gabe. Horrela, neurtzaileek ibilbidean zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jaso dute, horretarako espresuki prestatutako fitxetan (ikus 3. eranskina).

Hiztunek, bada, ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jaso dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna baztertzen da, eta horrela emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

### Elkarrizketa hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale erabileraren neurketa izanik, hiztun talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen, eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kalean behatzen ditugun hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakitenen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz, alegia). Eta dakitenen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza ohiturak aldatu ere egiten direla baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

### **Fitxak**

2008ko neurketa honetan erabilera datuak fitxa bakarrean jaso ditugu. Fitxa honen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen osaketa. Neurraldi guztietan fitxa berdina erabili da.

Laginari dagokionez, herriko biztanleria kontuan izanik erabileraren emaitzak adierazgarriak izan daitezene neurtu beharreko hiztun kopuru minimoa zenbatekoa den kalkulatu dugu. Lagin errepresentagarri horrek ezarritako gutxienekoak gainditu ahal izan ditugu egindako neurketetan eta, hortaz, neurketa horrek modu adierazgarrian islatzen du Aretxabaletako kaleetan gaur egun euskara zenbat erabiltzen den.

### **“Aretxabaletarren” erabilera baino Aretxabaletako kaleetakoa**

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Aretxabaletako biztanleen (*Aretxabaletarren*) erabilera denik. Horren ordez, zuzenagoa da esatea Aretxabaletako kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik. Adibidez asteleheneko neurketan azoka behatzen den egunean Aretxabaletako bertako eta kanpoko jendea ere neurtzen baita.

Bestalde, Kale Erabileraren Neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

### **Adierazgarritasuna**

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia, eta sexua, besteak beste. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baita hiztuna haurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna

galduko dute. Esaterako behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar adina lagin (neurtutako pertsona kopurua) izango dugu, baina adin talde bakoitzean sexuaren arabeko azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.



### 3 NEURKETAREN EMAITZAK


#### 3.1 Emaiza orokorrak

2008ko neurketa honetan jasotakoaren arabera, Aretxabaletan euskararen kale erabilera % 43.9koa da; alegia, kalean neurtu diren 100 elkarrizketetatik 44 entzun ditugu euskaraz, 55 gaztelaniaz eta 1 beste hizkuntza batean.

Egindako neurketetan guztira 1523 hiztuni<sup>1</sup> dagozkien datuak jaso dira, herriko biztanleriaren % 25.3a<sup>2</sup> litzatekeena. Behatutako hiztun kopuru honek Soziolinguistika Klusterrak neurketaren emaitzen fidagarritasuna bermatzeko ezarritako gutxienekoa erraz gainditzen du, eta hortaz, neurketa honetan lortutako erabilera datuek oinarri sendoa dute laginaren tamainari dagokionean.

Euskararen KALEKO ERABILERA (2008)	Euskararen EZAGUTZA (01)
<b>% 43.9</b>	<b>% 64,9</b>
Neurtutako hiztun kopurua	Aretxabaletako hiztun kopurua (01)
<b>1523</b> (herritarren % 25.3)	6.018

**ARETXABALETako ezagutza eta erabilera**



<sup>1</sup> *Hiztuna* diogunean 2 urtetik gorako biztanleriaz ari gara; hots, hitz egiteko gaitasuna 2 urtetik gorakoek dutela kontsideratu dugu.

<sup>2</sup> Aretxabaletak 6018 biztanle ditu 2001eko erroldako datuen arabera. Kontuan hartzekoa da, dena den, kale neurketa batean zenbait hiztun behin baino gehiago neur daitezkeela edota neurtutako hiztunen bat herrikoa ez izatea gerta daitezkeela.


## 3.2 Erabileraren bilakaera

Herriko euskararen erabilera aztertzeo garaian, erabileraren bilakaerari erreparatzeak berebiziko garrantzia du: batetik, normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako informazio interesgarria eskainiko digulako, eta bestetik, ondorengo urteetako jokaerak aurreikusten ere lagun diezagukeelako.

Emaitzak alderatzeko, 1990az geroztik udalerrian egin izan diren neurketak hartu ditugu kontuan. Kontua da, ordea, 2001era arte Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzuak egiten zituela kale erabileraren neurketak. 2001eko, 2003ko, 2005eko eta 2008ko neurketak, ordea, SEI elkarte eta Soziolinguistika Klusterrak egin izan dituzte. Lehenengo bost neurketa horien diseinua, ordea, ez zen guztiz oraingoaren berdina, nahiz eta oso antzekoak izan. Dena den, erabilitako metodologia oraingo bera zen, eta hortaz, erreferentzia gisa datuen konparaketa jaso dugu jarraian. Argi adierazi nahi dugu, berriro ere, konparaketa behar bezala egiteko neurketaren diseinuak berbera izan behar duela eta beraz konparaketa honetatik ezin dugula ondorio zuzenik atera. Hala ere, 2001eko, 2003ko, 2005eko eta 2008ko diseinuak berdinak izan dira eta beraz konparaketak eta bilakaerak aztertu ahal izango ditugu zortzi urte horien artean.

Ondorengo urteetako datuak konparatu ahal izateko, funtsezkoa izango da neurketak egiten direnean oraingo diseinu osoa errepikatzen jarraitzea. Gatozen, bada, bilakaerara. Hona hemen 1990tik 2005era Aretxabaletako kaleetan euskararen erabilera taulan jasota eta grafikoki azalduta:

ARETXABALETAKO ERABILERA	
URTEA	Erabilera (%)
1990	43,60%
1991	38,90%
1996	44,30%
1998	43,30%
2000	52%
2001	54,50%
2003	42,60%
2005	43,20%
2008	% 43.9



Neurketa hauetako erabileraren bilakaera aztertzean, garrantzitsuen joera orokorreari erreparatzea izan ohi da, datu zehatzei baino.

2008ko neurketan jasotako datuen arabera, Aretxabaletako kaleetan azken 18 urteotan (1990tik 2008ra, hain zuzen) erabilera mantendu egin da (0.3 puntu igo da). Euskararen erabileraren bilakaerak gora behera asko izan ditu neurketen arabera baina orokorrean %42-%44ko tartean ibili da.


1998tik 2000ra igoera nabarmena gertatu zen, bi urtetan erabilera 9 puntu igoz; 2001ean baieztatu egin zen goranzko joera hori, baina igoeraren erritmoa nabarmen mantsotuz. Gero % 42 ingurura hurbildu zen berriro ere erabileraren maila 2003an 2005ean eta 2008ko neurketan zertxobait gora egin du (1,3 puntu).

Dena den, urte batetik besterako alde txikiak baino, datuek adierazten diguten bilakaera orokorrari erreparatzeak du garrantzia. Bilakaeraren erritmoan gorabehera batzuk izan diren arren, nabarmenezkoa da Aretxabaletako euskararen erabilera azken hamazazpi urteotan mantendu egin dela; erabilera maila % 43,6 izatetik % 43,9 izatera pasatu da, hain zuzen. Euskararen erabilera mantentzea positiboa bada ere, ezagutzaren datuak (hurrengo kapituluaz aztertuko ditugunak) eta egoera soziolinguistikoa orokorra kontutan hartzen baditugu arretaz aztertzeko datua da hizkuntza plangintzaren norabidea finkatzeko garaian. Hala ere, aurrerago ikusiko dugunez euskaldunen kopurua % 64,9 izanik, Aretxabaletan behatutako erabilera maila altua da, bereziki EHko testuingurua kontutan hartuta.

### 3.2.1 Erabilera bilakaera. Gaueko giroa.

Ostiraleko edo asteburu gaueko giroa behatzea interes berezia dauka kale erabilera neurketetan. Izan ere, gazteen presentzia beste neurketa garaietan baino handiagoa da eta giroa guztiz informala izaten da. Gaueko erabilerak zein bilakabide izan duen jakiteko 1990etik 2008era arte egin diren neurketak aztertuko ditugu.

Ondorengo diagraman daukagu gauetan plaza inguruan erabilerak izandako bilakaera zein izan den:



Diagraman ageri diren datuek, ondorio baikorrak ateratzera garamatzate.

Gaueko giroan 1990ean neurtutako %46 batetik abiatzen gara. Hurrengo urtean (91) neurtutakoaren arabera erabileran jaitsiera txiki bat nabaritu ondoren, 1996 eta 2003 bitartean egindako neurketetan, % 58-60 inguruan kokatzen zen herriko erabilera, 2000ko emaitza harrigarriak salbu (18 puntuko gorakada; %77raino). 2003tik 2005era emaitzak 4 puntu jaitsi ziren, datuaren bilakaerari arreta jartzeko arrazoiak emanez. Baina azken neurketa hartatik aurtengo datuetara, gau giroan neurtutako erabileran 9 puntuko igoera eman da, datua azken 8 urtetako mailarik altuenean kokatuz; 1990etik hona neurtutako daturik altuenetako bat delarik.

15 urteetako joera orokorrari erreparatzen badiogu, erabilerak 18 puntuko igoera izan duela konturatzen gara, datu baikorra beraz, herriko erabilera orokorra ez baita ia aldatu 15 urte horietan.

Azkeneko neurketako datuei erreparatuta, gaueko neurketan jaso den erabilera maila (% 64,1) Aretxabaletan jaso den batez besteko erabileraren (% 43,9) oso gaineratik geratzen da. Beraz, datuen arabera pentsa daiteke ostiral gauetako giroa euskaldunagoa dela gainerakoan herrian izaten dena baino. Kontuan hartzekoa da, dena den, neurraldi honetan

gazteak neurtu ditugula gehienbat, eta herriko gazteen erabilera –aurrerago ikusiko dugunez- herriko batez bestekoa baino altuagoa dela.

2000tik 2005era sumatutako beheranzko joerari buelta eman zaiola dirudi, azken emaitza hauek ikusita. Hurrengorako erreparatu beharrekoa joera berri honi eusten ote zaion edo urte batean neurtutako datu solte baten kontua izan ote den da.

Nolanahi ere, gogoan izan gaueko giroan bi orduko neurraldia baino ez dugula egin. Beraz, datu hau erreferentzia mailakoa da (gaueko erabilera herriko erabilera orokorrarekiko eta beste urtetan neurtutakoarekiko kokatzeko balio digu) eta erreferentzia honen arabera, gauetako giroan erabilera % 64aren inguruan kokatzen da momentu honetan Aretxabaletan, erabilera orokorra eta aurreko urtetako erabileraren gainetik.

### 3.3 Zonaldekako emaitzak

Herritarren leku publikoetako hizkuntza erabilera neurtzea xede izanik, behaketa herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan oinarritu dugu. Zonalde horiek definitzeko, udalerriko auzo guztiak hartu dira kontuan, herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan jarraitu beharreko ibilbidea erabaki da, beti ere udaleko teknikariek elkarlanean.

Herriko auzoetako hizkuntza errealitatea ezagutu asmoz, behaketak beraz, auzoka egin ditugu. Hala ere, emaitzak datu orientagarri eta hurbilpenekoak baino ez dira, auzo batetik besterako biztanleen mugimendua handia baita; hau da, zaila gertatzen da auzo jakin bateko errealitate soziolinguistikoko zehatza antzematea, mugikortasuna, auzoen artean, etengabea delako.

Edonola ere, udal-arduradunekin adostutakoaren arabera, herria hiru zonalde ezberdinetan banatuta egin ditugu neurketak 2008ko neurketan (2001etik aurrerako diseinuan oinarrituta):


**1. ibilbidea:** San Miguel/Bedarreta auzoa; Santa Krutz ondoko pasealekutik Errekabarren kalea hartu, jarraian Loramendi kalea eta Belorrieta auzora; eta Markole auzoa eta herri irteerako etxeak.

**2. ibilbidea:** Otalora kalean bidegurutzetik hasita, herriko plaza ingurua, Durana kalea eta Mitarte.

**Gune berezia:** **Azoka** (Gernika plazan)

Hona hemen bakoitzean euskaraz neurtutakoen proportzioa ehunekotan:

Auzo edo guneak	Erabilera batez bestekoa
1. Ibilbidea	% 45,3
2. ibilbidea	% 45,3
Azoka	% 25,7
Gaueko Giroa	% 64,1




Diagraman ikusten denez, azokan jaso da erabileraren maila baxuena (% 25,7) eta lehen aipatu dugun moduan, gaueko giroan jaso da erabileraren maila altuena (% 64,1). Lehenengo eta bigarren ibilbideen artean ez da erabileraren alderik jaso, bietan neurtu da % 45,3ko euskararen erabilera. Grafikoari begiratuta, herriko erabilera hiru multzotan bereiz litekeela esan liteke Erdialdeko erabilera (1. eta 2. ibilbideak) dago alde batetik, eta bestetik, herriaren erdialdean goiz edo arratsalde arruntetan neurtutakotik bereizten diren bi gunek dauzkagu: azoka (erdaldunagoa) eta gaueko giroa (euskaldunagoa)

Gogora dezagun gaueko giroan gazteen kopurua behatutako laginean asko handitzen dela eta azokan aldiz, adinekoen eta helduen kopurua handitzen dela. Euskararen erabilera gaztetzen ari dela ondorioztarazten digu horrek edo, behintzat, honen susmoa izan dezakegu, baina adin taldeen arabera emaitzen azterketa baliatu beharko dugu hipotesi hau baieztatu edo ezeztatzeko.

#### **Azokako eta erdialdeko erabileraren alderaketa**


Aurretik azaldu dugun bezala, astelehen goizean, azokan ordubeteko neurraldia egin dugu, eta beste ordubete azokatik kanpo, erdialdean. Beraz, astelehen goizeko neurraldian azokan jasotako datuak eta azokaz kanpo (erdialdean) jasotakoak konparatzea ahalbidetzen digu honek, 2001ean 2003an eta 2005ean egin genuen moduan. Azokan, jende artean entzun dena soilik neurtu da eta ez jendeak saltzaileekin izandako elkarrizketak. Hala ere, neurketan herrikoa ez den jendea neurtzeari buruz aurrez egindako oharrek, bereziki hartzen du garrantzia azokaren kasuan, kanpotarrentzat erakargarri moduan joka baitezake.



Diagraman ikus daiteke azokako erabilera goiz berean erdialdean jasotako erabilera baino altuagoa dela; aldea nabaria da; 13.2 puntukoa, hain zuzen ere. Bi emaitza hauen artean alde esanguratsua dago. Baina kasu honetan, bi gune hauetan neurtutakoa metodologikoki bereziki baldintzatua dagoela esan beharra dago. Hiru baldintzapen nagusi izan dituzte neurraldi hauek, bertan jasotako datuen fidagarritasuna zalantzan jartzen dutenak:

- Azokan ordubeteko neurraldia baino ez dugu egin, eta erdialdean neurtutakoa ere beste ordubete izan da. Ordubeteko neurketa, berez, motz samarra da edozein neurraldirako.
- Ordubeteko neurketa onargarria izan zitekeen hala eta guztiz ere, baina horri, astelehen goizean, azoka eguna izan arren, herriko kaleetan jende gutxi zebilela gehitu behar zaio, bereziki azoka ostean neurtutako orduan (astelehena 12:00-13:00). Ordubeteko bigarren neurraldi honetan jende gutxiegi neurtu zen neurketaren datuak estatistikoki adierazgarri bezala kontuan hartzeko.
- Guzti honi, adinaren aldetik dagoen baldintzapena gehitzen badiogu (gehien bat adineko jendea dela), datu hauek erreferentzia mailan soilik erabiltzea komeni dela azpimarratu behar dugu.

Beste urteetan antzeko baldintzetan neurtutakoekin alderatzeko baliagarriak izan litezke, baina ez huts-hutsean erabilera mailaren irakurketa bat egiteko. Ohar hau kontuan hartuta, astelehenean herrian neurtutakoa herriko erabilera orokorra baino askoz ere baxuagoa izateari garrantzi erlatiboa eman behar zaio.




### 3.4 Adin taldekako emaitzak

Neurketako datuak adin taldeka bereizita jaso ditugu. Eta adin taldeak, berriz, honela banatu ditugu:

Haurrak:	2 urtetik 14 urte bitartekoak
Gazteak:	15 urtetik 24 urte bitartekoak
Helduak:	25 urtetik 64 urte bitartekoak
Adinekoak:	65 urtetik gorakoak

Egindako neurketa guztiak batuta, honako hau da adin talde bakoitzean neurtutako euskararen erabilera:



Diagramari lehen begirada bat botatzea nahikoa da, euskararen erabilera Aretxabaletan adinaren arabera bi bloke edo talde handitan bereiz litekeela konturatzeko. Alde batetik, erabilera altuena duten adin taldeak daude, haur eta gazteak. Biak kokatzen dira herriko erabilera orokorraren gainetik, % 53,7 eta % 51,7ko erabilera mailarekin hurrenez hurren. Hauek baino erabilera maila baxuagoarekin heldu eta adinekoen taldeak ikus litezke: % 38,9 eta % 39,3ekin, hurrenez hurren.

Honetaz gain, adin talde guztien artean dagoen aldea baxua dela esan behar da. Erabilera maila altuenetik baxuenera 14,4 puntuko aldea besterik ez dago eta honek, neurtutako beste herri askotan baina trinkotasun handiagoa adierazten du. Ez dago adin taldeen arteko ebaki esanguratsurik.

Haurren erabilera maila, ikus daitekeen bezala, herriko batez besteko erabilera maila baino 10 puntu altuagoa da Aretxabaletan. Nabarmentzekoa da, hala ere, gazteen erabilera maila haurrenarengandik oso gertu kokatzen dela (2 puntu baxuagoa da). Euskal Herri mailan joera orokorra gazteen erabilera haurrenaren azpitik agertzea da, eta Aretxabaletan ere hori gertatzen den arren, aldea oso txikia da kasu honetan. Adin taldekako erabilerearen bilakera



aztertzeraz pasatzen garenean, haurrena eta gazteenaren arteko aldea nola joan den aldatzen aztertu beharko da.

Adin talde erdaldunena helduena dugu. Helduen erabilera maila, herriko batez besteko erabilera maila baino 5 puntu beherago ageri da. Adinekoena ere helduenarengandik oso gertu aurkitzen da, zertxobait (puntu 1) altuagoa izan arren. Ezagutza maila kontuan hartuta (2001eko datuen arabera) ez da harritzekoa helduen erabilera maila adinekoenaren azpitik egotea. Izan ere, Euskal Herriko herri gehienetan ere kasu bera gertatzen da, alegia, adinekoen erabilera maila helduenaren gainetik egotea (besteak beste, euskal hiztunen proportziorik baxuena helduen adin taldekoa izaten delako, Aretxabaletan gertatzen den bezala).


Adin taldekako erabilerari erreparatuta, euskararen berreskurapenerako hurrenkerarik desiragarrietatik (haur-gazte-heldu-adineko) gertu dago Aretxabaleta. Hurrengo urteetan haur eta gazteen arteko tarte txikia honela mantentzea eta gazte eta helduen artekoak txikitze aldera jotzea litzateke bilakaera baikorraren seinale.

### 3.5 Adin taldekako erabileraren bilakaera

Herri batean euskararen erabilera aztertzeko garaian erabileraren adin taldekako bilakaera bereziki garrantzitsua da. Normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako datu zehatzagoak lor ditzakegu, eta neurri batean, ondorengo urteetako jokaerak ere aurreikus genitzake.


Aurretik esan dugun bezala, Aretxabaletan 1990tik euskararen erabileraren neurketa ia urtero egin da. Neurketa horiei erreparatuz adin taldekako bilakaera aztertzeko aukera badugu.

Hona, hurrengo diagraman, azken hemezortzi urtetan adin talde ezberdinek erabilerari dagokionean Aretxabaletan izaniko bilakaera:




Ikus dezakegunez, bilakaerak gorabeherak izan ditu hemezortzi urte hauetan. 2008eko datuak 1990ekoekin alderatuta, haurren erabilera behera egin du: 15,6 puntu. Gazteen kasuan, zortzi puntu eta erdiko igoera eman da. Helduen erabilera, egonkortasun handiena erakutsi duena izan da, 3,3 puntuko igoera eman badu ere. Adinekoetan, azkenik, jaitsiera nabarmena izan da, izan ere ia 20 puntutik gora egin du behera euskararen erabilera.


Haurren artean, bilakaera negatiboa izan da 1996 arte, geroztik erabilera igotzen joan da 2001.ean %76,5 puntutan kokatu arte. 2003ko eta 2005eko behaketetan behera egin zuen eta % 58 inguru honetan egonkortu zen; baina ordutik hona, 4,5 puntuko jeitsiera bat eman da. Aretxabaletan azken 18 urtetan neurtu den mailarik baxuenean kokatzeraino (%53,7). Datozen urteetan bereziki erreparatzeko arrazoiak ematen ditu datu honek, abiapuntua altua zela kontuan izanik eta adin talde euskaldunena izaten jarraitzen duen arren, ezagutzaren bilakaerak eta Euskal Herri mailako joera nagusiek ez baitute jaitsiera nabarmen hau ulertu ahal izateko pistarik ematen.




Gazteetan ostera, 2000. urte arte nabarmena izan da erabileraren igoera. Urte hartan % 80an kokatu zen gazteen euskararen erabilera. Geroztik etengabe egin du behera 2005.ean % 41 puntutan kokatu arte. Momentu horretan, kezka iturri izan zitekeen joera horri, neurri batean buelta eman zaio azken 3 urteetan. 2005etik 2008ra 10,7 puntu igo da erabilera maila, haurrenera hurbiltzeraino. Joera positibo honek eta haurtzarotik gaztarorako trantsizioan erabilera ohiturak mantentzea, etorkizunean iraungo duten ikusi beharko da aurrerantzean.



Helduen erabilera azken 18 urteotan zertxobait hazi egin da (+3.3); baita azken 5 urteotan ere (+5). Hala ere, datu honen bilakaeran emaitzen egonkortasuna da irakurketa nagusia. Azken bederatzi neurketatik zortzitan %30-40 bitartean neurtu da helduen kale erabilera. Adin talderik erdaldunena izaten jarraitzen badute ere, joera leunki gorakorra da oraingoz. Aurrerantzean, belaunaldi aldaketaren poderioz, erabileraren norabidea ondo zaindu beharko da; izan ere, gaurko haurren eta gazteen euskararen ezagutza eta erabilera mailen eragina helduen erabileran helduak izatera pasatuko direnean ezagutzea interesgarria izango baita.




Adinekoen bilakaera negatiboa izan da: urtetik urtera gorabeherak izan diren arren, jaitsiera nahiko nabarmena jasan du hemezortzi urteren buruan; 20,9 puntuko beherakada, hain zuzen ere. Euskal Herri mailan, bilakaera hau ohikoa da eta euskararen ezagutzaren mailaren bilakaerari lotuta dago.



### 3.6 Neurketa egunen araberako emaitzak

Aretxabaleto kaleetako erabilera aztertzeko bost neurraldi nagusi egin dira. Asteazken zehar hiru eta aste bukaeran beste bi. 2003 eta 2005eko neurketetan bezala, euskararen erabilera maila altuena ostiraleko gauean neurtu da (%64,1), ondoren, % 50 inguruan, larunbateko goiza aurkitzen da. Zertxobait beherago asteazken eta larunbat arratsaldeak aurkitzen dira (%41-43). Eta azkenik, asteleheneko goizeko neurraldia daukagu, gainontzekoen azpitik kokatzen dena, nabarmen: %21,7. Neurketa honetakoak 2003ko eta 2005eko datuen ondoan ikusita, euskararen presentzia herrian larunbat goizetan eta astegunetako arratsaldeetan handiagoa dela ondoriozta daiteke, gertaera hau, neurri batean, haurren eta gazteen presentzia handiagotaz azaldu daitekeelarik.


**Neurketa egunen araberako emaitzak**



### 3.7 Sexuaren araberako emaitzak


Hego Euskal Herrian, hiztunaren sexuak, hau da, hiztuna emakumezkoa edo gizonezkoa izateak oro har ez du eragin esanguratsurik euskara erabiltzerakoan. Eta gizonezkoen emakumezkoen baino erabilera maila zertxobait altuagoa neurtu zaien arren, neurtutako orduak, egoerak eta neurtutako erabilera funtzioak dira alde honen atzea dagoena. Gaur egun, ezin da esan sexua Aretxabaletan erabileran alde adierazgarria eragiten duen aldagaia denik.

**Sexuaren eragina erabileran**




Aurreko urteetako datuak ere baditugu Aretxabaletako sexuari dagokion eraginaren bilakaera aztertzeke. 2005ean Aretxabaletan, gizonetzkoen erabilera emakumezkoena baino 5,8 puntu altuagoa neurtu zen, sexuaren aldagaiak erabilera eragin adierazgarria izan zezakeela iradokiz. 2008ko neurketa honetan, aldea txikitu egin da (2,3 puntura), Diagramari erreparatuta ikus dezakegu, 2001. urtetik hona gizonetzkoen euskararen erabilera emakumezkoena baino zertxobait handiagoa izan dela. Datua ulertzeke, azokaren eragina euskararen erabilerrari dagokionez gogoratu behar dugu. Izan ere, azokan neurtutako emakume kopuru handia ikusita, datu orokorretan eragina izatea normala da. Ikusten dugunez, lekuak eta funtzioak eragina dute hizkuntzen erabilera eta azoka garaian euskararen erabilera nabarmen jaisten denez emakumezkoen erabilera maila orokorra ere jaisten da, izan ere azokan neurtutako emakumezkoen kopurua gizonetzkoena baino askoz handiagoa baita.

Sexuaren eraginaren bilakaera (98-08)




### 3.8 Haurren presentziaren eragina

Haurren presentziaren aldagaia ere biziki interesgarria zaigu, kasu askotan euskararen erabileran eragin nabarmena baitu. Egin ditugun hainbat neurketatan (beste herrietan, Euskal Herrian...) haurrak tartean egotean euskararen erabilera nabarmen igotzen dela baieztatu ahal izan dugu. Datuek adierazten dute arau orokor hau Aretxabaletan ere betetzen dela, baina badaude aztertu beharreko xehetasunak. Ikus dezagun ondorengo diagraman, haurrak egon ala ez, zenbatekoa den aldea:




Haurrik tartean ez denean erabilera % 30ekoa den bitartean, haurrak presente daudenean, neurtutako erabilera 23,6 puntu altuagoa da (% 53,6). Nabarmen hazten da, beraz. Ondorioz, haurrik ez egotetik egotera dagoen eragin indizea % 78,7<sup>3</sup> da. Esan bezala, hortaz, Aretxabaletako kaleetan elkarrizketa batean haurrak tartean egotearen aldagaiak eragin nabarmena du elkarrizketa euskaraz edo erdaraz izateko. 2001, 2003 eta 2005eko neurketetan haurren presentziaren eraginez, erabilera maila haurrik ez zegoenean bazegoenean baino 26,9, 18,2 eta 22,9 puntu baxuagoa zen, hurrenez hurren.



<sup>3</sup> Indize hau, haurren presentziaren eragina erakusten duena, honela atara dugu:  $(53,6-30) / 30 * 100$

Dena den, haurren presentziak zein eragin duen jakiteaz gain, interesgarria zaigu erabilera edo komunikazio hori zehazki zeintzuen artean gertatzen den jakitea. Hori azaltzen digu ondorengo diagramak:



Lehen begiradan, haurren presentziarik gabeko elkarrizketetan (%30) haurrak presente dauden edozein aldaeratakoetan baino euskara gutxiago erabiltzen dela ikus liteke (%36,9; %40; %70,2). Hala ere, alde nabarmena haurrek nagusiekin harremana dutenean ikusten da (% 70,2).


Puntu honetan, joera negatibo bat neurketaz neurketa areagotuz doala ikus dezakegu. Izan ere, haur eta nagusien arteko hizkuntza harremanak gero eta gehiago euskaraz ematen badira ere, haurren arteko elkarrizketetan erabilera erritmo bizian ari da jaisten. 2001. urtean %83,7koa izatetik 2008an %40 izatera pasa da, neurketaz neurketa beheranzko jauzi handi bat emanez. Haurren arteko erabilera, haurren presentzian nagusiek duten erabileraren parera hurbiltzeraino jaitsi da. Eta esanguratsua da zirkunstantzia hau. Izan ere, bi adin taldeek elkarren arteko harremanetarako euskararen aldeko hautua egiten badute ere, gero eta gehiagotan haurrak, euren arteko harremanean, helduek euren artean duten jokaerarantz doaz.

Datu hau ondo aztertu beharko da datozen urteetan, izan ere nagusien arteko harremana erdaraz gehiago bada eta haurrek haien artean euskara gutxiago egiten badute, haurrek euskarari haurren hizkuntzaren balioa eta irudia emango diote eta nagusi sentitzen direnean, gazte aroan, erdarara joko dute. Hala ere, hipotesi mailan utzi beharko dugu

errepresentazioei dagokien bilakaera hau, datua zehazteko eta baieztatzeko ikerketa kualitatiboa sakon bat egitea beharko bailitzateke.

### 3.9 Haurren eraginaren bilakaera erabileran

Haurren presentziak aldagai bezala erabileran duen eragina 2001ean eta 2003an ere aztertu zen Aretxabaletan. Neurketa horietan ere datuak modu berean jaso zirenez, ondorengo diagraman duzue 2001eko 2003ko eta 2005eko datuen alderaketa:






Haurren eraginaren indizea zenbatekoa izan den erakusten digu grafikoak, 2001eko 2003ko eta 2005eko neurketetan. Argi geratzen da hiru neurketetan haurren presentziak eragina izan duela. Aldagaiaren eragina, proportzioan, 2001eko eta 2005eko neurketetan 2003koan baino handiagoa izan da.



## 4 HIZKUNTZA GAITASUNA ETA BILAKAERA HERRIAN

### 4.1 Aretxabaletako ezagutza (2001)

Aretxabaletako hizkuntza ezagutza (2001eko datuetan oinarriturik) hiru kategorian nagusietan banatu dugu: euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak. Ondorengo hiru diagrametan herriko ezagutza eta kategorian biren (euskaldun eta ia euskaldunen) barne-eraketa biltzen dira (*ikus hurrengo orrian kategorian bakoitzaren azalpena*):



#### Aretxabaletako euskaldunak

Aretxabaletako euskaldunetan, gehiengoa, %76, alfabetatuak dira, eta erdizka alfabetatuak, ostera, % 21 dira. Aretxabaletako euskaldunetan, beraz, % 3 besterik ez dira alfabetatugabeak.

#### Aretxabaletako ia euskaldunak

ia euskaldunen kategorian, berriz, % 29 alfabetatuak dira; euskaldun pasiboak dira gehiengoa (% 39); eta alfabetatugabeek, berriz, % 32 osatzen dute.


Kategoria hauek eroldako galdesortan euskararen jakite-mailari buruz egiten diren lau galderei (*ulertzen duzu?*, *hitz egiten duzu?*, *irakurtzen duzu?*, eta *idazten duzu?*) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (*ezer ez*, *nekez*, eta *ondo*) konbinatuz zazpi hiztun kategoria sortzen dira:

	ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUN ALFABETATUAK	ONDO	ONDO	ONDO	ONDO
EUSKALDUN ERDI- ALFABETATUAK	ONDO	ONDO	NEKEZ	NEKEZ
EUSKALDUN ALFABETATUGABEAK	ONDO	ONDO	EZ	EZ
IA EUSKALDUN ALFABETATUAK	ONDO/ NEKEZ	NEKEZ	ONDO/ NEKEZ	ONDO/ NEKEZ
IA EUSKALDUN ALFABETATUGABEAK	ONDO/ NEKEZ	NEKEZ	EZ	EZ
IA EUSKALDUN PASIBOAK	ONDO/ NEKEZ	EZ	EZ	EZ
ERDALDUNAK	EZ	EZ	EZ	EZ

Honenbestez, diagrama nagusiari (Aretxabaletako ezagutza) erreparatuz gero, Aretxabaletan euskaldunak gehiengoa direla ohar gaitzke (% 64,9); ondotik erdaldunak leudeke (% 18,2), eta azkenik, ia euskaldunak direnak (% 16,9).

## 4.2 Ezagutzaren bilakaera

Hizkuntza ezagutzaren eboluzioa ezagutze aldera, 1986tik 2001era bitarteko hiru hiztun tipologiaren ezagutza-bilakaera duzue ondorengo diagraman:



Aretxabaletako euskaldunen bilakaera positiboa da azpimarragarrien, hamabost urtetan 9 puntu igo delako euskararen ezagutza; 1986tik 1996ra bilakaera konstantea izan da (bosturteko bakoitzean 4 puntu igo da); azken bosturtekoan, ordea, igoeraren abiadura asko mantsotu da, 1,4 puntu soilik igoz.

Erdaldunei dagokienean, berriz, 9 puntutan jaitsi dira erdal hiztunak hamabost urteotan. Kasu honetan, jaitsierarik nabarmenena 1986tik 1991ra (lehen bosturtekoan, 3,3 puntu) eta 1996tik 2001era (4 puntu) gertatu da.

la euskaldunak direnak, azkenik, nahiko egonkor mantendu dira hamabost urteren buruan. 1996ra arte beheranzko joera izan du ia euskaldunen bilakaerak; 1996tik 2001era, ordea, 2,6 puntuko igoera izan dute, eta berriro ere 1989ko ezagutza mailaren paretsuan aurkitzen dira.

## 4.3 Adin taldekako ezagutzaren bilakaera


Aretxabaletan ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak haurrena eta bereziki gazteena izan dira; ezagutzari dagokionez, haurrek 21 puntuko igoera izan duten bitartean, gazteena 42 puntutakoa izan da. Gazteengan 1991-1996 urteetan gertatu da ezagutzaren gorakadarik nabarmenena; azken bosturtekoan bilakaera positiboaren erritmoa mantsotu egin da. Haurrengan, berriz, 1986tik 1991ra bitartean gertatu da gorakadarik nabarmenena; 1991tik 1996ra erritmoa mantsotu egin da, eta azken bosturtekoan, berriz, bilakaera negatiboa izan da, berriro ere 96ko ezagutza mailaren parera etorri (ia 4 puntu jaitsi da haurren ezagutza maila). Kontuan hartu behar da, 91rako oso altua zela haurren ezagutza maila (% 88), eta gauza bera gertatu da 2003an ere gazteen ezagutza mailarekin (% 91ra iritsi dela).

Bilakaerarik negatiboena jasan duen adin taldea, berriz, adinekoena izan da. Hamabost urteren buruan 5,3 puntu jaitsi da, azken bosturtekoan izan delarik jaitsierarik nabarmenena. Helduengan, berriz, 96ra arte bilakaera nahiko egonkorra izan den arren (% 50-52 artean), azken bosturtekoan 5 puntuko igoera gertatu da helduen ezagutza mailan.


1986an euskaldunen ehunekorik baxuenak gazteek bazituzten ere (% 48,6), 15 urte beranduago egoera aldatu egin da. Gazteen artean euskaldunen ehunekoak nabarmen egin du gora (ia bikoiztu egin da 15 urteren buruan), eta orain ehunekorik altuena duen adin taldea beraiena da.

Adin taldeen ezagutzaren bilakaera beste bi herrirekin alderatuko dugu: eskualde-buruarekin, eta eskualde berean egon ez arren, tipologia bereko beste batekin. Arrasate eta Antzuola ekarri ditugu ondorengo diagrametara; hurrengo orrialdean dituzue hiru herrietako ezagutzaren bilakaeraren diagrama horiek.


**Aretxabaletan, adin-taldekako ezagutzaren bilakaera**



**Arrasaten, adin-taldekako ezagutzaren bilakaera**



**Antzuolan, adin-taldekako ezagutzaren bilakaera**



Oro har, ezagutzaren bilakaerak antzeko joera izan du hiru herri hauetan: haurren eta gazteengan gertatu da ezagutza mailako bilakaerarik nabarmenena; hamabost urteotan gorakada garrantzitsua gertatu da bi adin talde hauetan, eta honek zerikusi zuzena du urte hauetan irakaskuntzan gertatu den euskalduntzearekin. Haurren, nabarmentzekoa da Antzuolan eta Arrasaten ere, Aretxabaletan bezala, beheranzko joera izan duela ezagutzak azken bosturtekoan.

Aretxabaletan gertatu den moduan, helduen ezagutza mailak neurri apalagoan baina gora egin du Antzuolan eta Arrasaten.

Adinekoengan, azkenik, euskaldunetan beheranzko joera nabari da hamabost urte hauetan. Jaitsiera nabarmenena Antzuolan gertatu da. Aretxabaletan eta bereziki Arrasaten proportzio txikiagoan jaitsi da adinekoen ezagutza maila.

Aurrerantzean, beraz, gazteengan bilakaeraren joera berari eusten bazaio, helduen eta adinekoen adin taldeak euskaldunago bilakatuko dira, eta horrek erabileran ere eragin positiboa izango duela pentsa liteke. Gertutik jarraitu beharko da, aurretik esan bezala, haurren ezagutzaren bilakaera.

## 5 EMAITZEN AZTERKETA ETA ESANAHIA

### 5.1 Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena

Atal honetan erabilera erreala eta espero daitekeen erabileraren (erabilera isotropiakoaren) arteko alderaketa egingo dugu; bata, erabilera erreala, Kale Neurketan jasotako emaitza da, eta bestea J.L Alvarez Enparantzaren –*Txillardegiren*- eredu matematikoa aplikatu ondoren lortutakoa. Horretarako euskararen ezagutza mailaren arabera espero daitekeen erabilera kalkulatu da, hau da, ezagutza hainbestekoa izanik (gure kasuan % 64,9 da) bikotekako, hirukotekako, eta laukotekako elkarrizketetan euskaraz hitz egitea estatistikoki zenbatean den posible aztertzen da. Horretarako gure hipotesian euskaldunak euskaldunekin elkartzen direnean BETI euskaraz mintzatuko direla suposatuko dugu; egoera baikorrena beraz, elebidunak euskararekiko erabat leialak baitira, eta elebidun batekin topatzean beti euskaraz arituko dira.

Beraz, hipotesi horri jarraituta ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazioa aztertuko dugu. Sarritan entzun ohi da erabilera ezagutza mailara iristen (edo gerturatzen) ez den bitartean, erabilera baxua dela. Baieztapen hori, ordea, ez da zuzena, ezagutza eta erabilera ezin daitezkeelako bat etorri, gurea bezalako aldebakarreko elebitasun egoera batean.

Azter dezagun ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazio hori adibide batekin:

Eman dezagun laukote batean (A, B, D, C) hiru elebidun ditugula: A, B, D. Demagun elebidun horiek euskararekiko erabat leialak direla, alegia, beraien mintzakideak euskaraz baldin badaki beti euskaraz aritzen direla (adibiderako hipotesi didaktiko bat da, dudarik gabe).

Laukote horretan euskararen ezagutza % 75 da, lautik hiru baitira euskaraz hitz egiteko gai. Azter dezagun jarraian euskararen erabilera .

Horretarako zoriz gerta daitezkeen elkarrizketa posibleak kalkulatu ditugu.

Bikoteka, 6 talde ditugu: AB, AD, AC, BD, BC, eta DC. Horietatik C ez dagoenean hitz egingo da euskaraz, hiru kasuetan beraz (AB, AD, eta BD), beste bikoteetan erdaldun elebakarra baitago.

Hirukoteka, 4 talde ditugu: ABD, ABC, ADC, eta BDC. Horietatik elkarrizketa bakarrean hitz egingo da euskaraz (ABD), gainontzeko hiruretan erdaraz mintzatuko dira.

Azkenik, laukoteka talde bakarra dugu. Eta noski C erdaldun elebakarra bertan egonez gero, erdaraz arituko dira.

Ondorioa garbia da: hamaika taldetatik —6 bikote, 4 hirukote eta laukote 1— lau taldetan arituko dira euskaraz — 3 bikotetan eta hirukoteko batean—. Hau da, taldeen % 36,4an arituko dira euskaraz.

Erabilera isotropikoaren formulak aplikatzen baditugu, ikusten dugu nola euskararen ezagutza % 75 izanik, eta euskaldunak aukera guztietan (mintzakidea euskalduna den guztietan) euskaraz arituko direla suposatuta —egoera baikorrena, beraz— erabilera % 48,16 da.

## 5.2 Erabilera erreal eta espero daitekeen erabilera

Aurreko adibidearen oinarria matematikara ekarrita, J.L. Alvarez Enparantzak *-Txillardegik-* espero daitekeen erabilera kalkulatzeko eredu sortu du. Ikus dezagun jarraian Aretxabaletan egindako eredu horren aplikazioa.

Aretxabaletako euskararen ezagutza, 2001eko eroldaren arabera, % 64,9 da. Espero daitekeen erabilera (edo erabilera isotropiakoa) ondorengo formularekin kalkulatu dugu:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$


$P_B$ =euskararen erabilera maila  
 $m_B$ =euskararekiko leialtasuna  
 $w_2$ =bikotearen pisua  
 $w_3$ =hirukotearen pisua  
 $w_4$ =laukotearen pisua  
 $e_x$ =elebidunen proportzioa

**Euskararen erabilera maila:**

$$1(0,5488 \cdot 0,649^2 + 0,2862 \cdot 0,649^3 + 0,1650 \cdot 0,649^4) = 0,5107 = \% 33,9$$

Hortaz, Aretxabaletako biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 33,9 da. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreal, ordea, % 43,9koa da. Espero daitekeena baino 10 puntu altuagoa, hain zuzen ere.

Espero daitekeen erabilera eta behatutako erabilera





Esan bezala espero daitekeen erabilerak zera adierazten du: herriko edonork beste edonorekin hitz eginez gero (ausazko konbinaketak eginaz), zenbat aukera dauden estatistikoki biak euskaldunak izateko. Beste era batera esanda, euskaldunek, aukera duten egoera guztietan (leialtasuna %100) euskaraz egiten dutela suposatuz, erabilera zenbatekoa litzatekeen.

Hau erreferentzia teorikoa da, dena den. Jakin badakigu praktikan:

- euskaldunen leialtasuna ez dela % 100ekoa izaten: euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla kasu guztietan euskaraz izaten.
- herriko edonork ez duela praktikan beste edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin, adin berekoekin eta herriko zenbaitekin ez dugu praktikan inoiz harremanik).

Hau guztia kontuan izanik, Erabileraren Neurketan jasotako emaitza honela baloratu dezakegu *espero daitekeen erabilerarekin* alderatuta:

- Erabilera errealaren isotropiakoaren gainera ageri da, 9,3 punturen aldearekin. beraz, ezagutzagatik espero zitekeenarekiko altuagoa da euskararen erabilera. Horretarako arrazoi nagusiak bi izan daitezke<sup>5</sup>:
- Herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi dira, gehienbat beraien artean harremantzen direlako. Honela, egunerokoan euskaldunak eraldunekin erlazio gutxi izatean, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa da..
- Erabiltzeko aukera izanik, herriko euskaldunen leialtasuna handia da, eta ondorioz, euskaldunen arteko elkarrizketak gehienetan euskaraz dira. Horrek ere, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa izatea ekarriko du:
- Hortaz, Aretxabaletako biztanle guztien arteko zorizko hizkuntza harreman posibleetan euskaldunek euren artean beti euskaraz egiten dutenaren indize teorikoak % 33,9 ematen badu ere, praktikan, egindako neurraldian emaitza altuagoa aterata da: % 43,2 da, hain justu, Aretxabaletako kale erabilera.

*Espero daitekeen erabileraren* inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, “Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa” eranskinera jo dezakezue.

---

<sup>5</sup> Balorazio hauek egiteko ezinbestekoa da erabileraren bilakaera eta herriaren ezaugarriak sakonkiago aztertzea eta ezagutzea. Honako hau ditugun oinarritzko datuekin egindako irakurketa bat da, modu hertsian baino hipotesi bezala gehiago ulertu behar dena.

### 5.3 Eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuekiko alderaketa

	ezagutza (01)	erabilera (08)	espero zitekeen erabilera (01)
ARETXABALETA	% 64,9	% 43,9	% 33,9

Eskualdeko hainbat herriren datuak:


	ezagutza (01)	erabilera (05)	espero zitekeen erabilera (01)
ANTZUOLA	% 76,8	% 67	% 51

	ezagutza (01)	erabilera (07)	espero zitekeen erabilera (01)
ESKORIATZA	% 59,4	% 41,6	% 27,4

	ezagutza (01)	erabilera (04)	espero zitekeen erabilera (01)
BERGARA	% 70	% 36,9	% 40,7

	ezagutza (01)	erabilera (06)	espero zitekeen erabilera (01)
ARRASATE	% 55,9	% 27,99	% 23,8

Ondorengo diagraman Deba goieneko hainbat herriren ezagutza eta erabilera jasotzeaz gain, duten ezagutzaren arabera espero daitekeen erabilera (isotropiakoa) bildu da:



Ezagutzari erreparatuz gero, Antzuolan aurkitzen da ezagutza maila altuena, eta espero daitekeen erabilera mailari dagokionez ere gauza bera gertatzen da. Behatutako erabilera ere eskualdeko handiena da Antzuolakoa, eta erabilera teoriko eta behatutakoen arteko jauzi handiena da ere. Azken datu hau normala da Antzuolan euskaldun kopurua kontutan hartuta. Aretxabaletaren kasuan, euskararen ezagutzari dagokionez, hirugarren herri euskaldunena da Antzuola eta Bergara ondoren kokatuta dago, baina erabilerari dagokionez, Aretxabaleta Bergararen aurretik kokatzen da.


**Eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuak:**

DEBA GOIENA	ezagutza (01) % 65,6	erabilera (01) % 43,7	espero zitekeen erabilera (01) % 34,7
-------------	-------------------------	--------------------------	--

GIPUZKOAN	ezagutza (01) % 51,5	erabilera (06) % 32,7	espero zitekeen erabilera (01) % 19,6
-----------	-------------------------	--------------------------	--

Euskal Herrian	ezagutza (01) % 27	erabilera (06) % 14,2	espero zitekeen erabilera (01) % 4,7
----------------	-----------------------	--------------------------	---

**Ezagutza, erabilera eta espero daitekeen erabilera**



Aretxabaletako erabilera eskualdean neurtutakoaren parekoa da, % 43,7 bada Deba Goieneko batz besteko erabilera maila, Aretxabaletakoa % 43,9koa da, 0,2 puntuko ezberdintasuna bakarrik. Herrialdeko eta Euskal Herriko erabilerekin alderatzen badugu, Aretxabaletako kaleetan jasotako euskararen erabilera Gipuzkoako eta Euskal Herriko batz besteko erabilera mailak baino askoz altuagoa da diagraman ikusten denez. Gipuzkoakoa baino 13,3 puntu altuagoa eta Euskal Herrikoa baino 29,2 puntu altuagoa hain zuzen ere.

Diagrama honetan ikus dezakegunez, neurtutako erabilera espero daitekeen erabilerekin gainera da eskualdean, Gipuzkoan, Euskal Herrian, eta baita Aretxabaletan ere.

## 6 DATOZEN URTEETARAKO BEGIRA PROSPEKZIOA (2008-2018)

Atal honetan, datozen urteetarako herriko euskaldungoaren bilakaeraren prospekzioa duzue. Prospekzioa SEI Elkarteak sorturiko BEGIRA tresna erabiliz prestatu dugu eta euskararen ezagutzak, zein espero daitekeen erabilerak datozen hamar urteetan herrian izango duen bilakaeraren berri ematen digu.

**Ezagutzaren bilakaera:**

HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
<b>Aretxabaleta</b>	5836	6018	3707	3905	0,62	1,05

BEGIRA erabiliz, zera kalkulatu dugu: 1996. eta 2001. urteetako erroldetako biztanleria eta euskaldungoaren datuetatik abiatuta, euskaldunen kopuruak teorikoki zein bilakaera jarraituko duen datozen urteetan (96tik 2001erako bilakaera berdina jarraituta). Ondorengo taulan dituzue urtez urteko datuak:

		Euskaldun kopuruaren bilakaera											
		2001	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Aretxabaleta	Eusk	3905	4200	4244	4288	4333	4379	4424	4471	4517	4565	4612	4661
	%	64,89	66,86	67,14	67,43	67,72	68,01	68,30	68,59	68,88	69,18	69,47	69,77

Halaber, ezagutzaren bilakaera honetan oinarrituta “espero daitekeen erabilera” edo “erabilera isotropikoa” ere kalkula genezake, *Txillardegiren* eredu matematikoan oinarrituz:

**Erabilera isotropikoaren bilakaera:**


Ondorengo diagraman duzue Aretxabaletan datozen 11 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropikoak izango duten bilakaeraren prospekzioa:

		Erabilera isotropikoa (estimazioa)											
		2001	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Aretxabaleta		33,85	36,38	36,75	37,14	37,52	37,91	38,31	38,70	39,11	39,51	39,93	40,34

BEGIRA aplikazioa baliagarria zaigu kasu askotan ditugun datuetatik abiatuta bilakaera zein izango den jakiteko.

Kontuan izan, BEGIRAKo prospekzioa egiteko 1996ko eta 2001eko erroldako datuak erabili ditugula. BEGIRAK, ezagutza aldetik urte horietan gertatu den bilakaera bere horretan mantenduz gero, ezagutzak (eta horren arabera erabilera isotropiakoak) zein bilakaera izango duen azaltzen digu. Kontuan izan 1996tik 2001era Aretxabaletan euskararen ezagutza eta biztanle kopurua ere oso gutxi aldatu direla. Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna da urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

BEGIRA aplikatuta Aretxabaletako prospekzioak adierazten digunarekin batera, kontuan hartu behar dugu erabilera isotropiakoaren gaintik dagoela erabilera erreala Aretxabaletan. Beraz, pentsa liteke joera hori mantentzen bada erabilera erreala BEGIRAK erakusten digunaren gaintik egongo dela.



## 7 ERANSKINAK

### 7.1 *Txillardegiren* eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa

#### OINARRI TEORIKOAZ ETA KONTZEPTUAREN ESANAHIARI BURUZKO ZENBAIT AZALPEN (laburpen gisa)

Txostenean “*espero daitekeen erabilera*” bezala izendatu duguna, berez, J.L. Alvarez Enparantza “*Txillardegik*”k garaturiko “*erabilera isotropiakoa*” da, eta egile beraren Eredu Matematikoan oinarrituriko kontzeptua da. Ondorengo lerrootan kontzeptu honen oinarria, esanahia eta erabilgarritasunari buruzko laburpen bat duzue.

Gaiari buruz informazio osatuagoa nahi duenak jo beza BAT Soziolinguistika aldizkariaren 28. zenbakira (51-68 orr, Xabier Isasi eta Arantxa Iriarteren artikulua, bertatik hartu ditugu laburpen honetan letra etzanean ageri diren testu batzuk). Eredu osoa, berriz, *Txillardegik* eta Xabier Isasik argitaraturiko *Soziolinguistika Matematikoa* liburuan duzue (UEU-EKB, Bilbo; 1994).

Laburpen honetan *Txillardegiren* eredutik zenbait puntu aipatuko ditugu soilik, Kale Erabileraren Neurketa egiteko moduarekin eta Erabilera Isotropiakoa kontzeptuarekin lotura zuzena dutenak, beti ere erabilitako metodologiaren eta kontzeptuen ulermena errazteko xedez.

#### Abiapuntua: ukipen egoera

Hasteko, kontuan izan behar dugu gurea hizkuntza ukipen egoera bat dela (gure kasuan, gizarte berean bi hizkuntza):

*Txillardegik* garatutako eredu matematikotik alderdi bat besterik ez dugu hartu. Hizkuntzen arteko ukipen egoerari aplikatuko diogu. Egoera horretan, esan dugunez, B hizkuntzako hiztun elebakar multzo esanguratsurik ez dago, hiztun guztiak A hizkuntzaren jabe diren bitartean, haien arteko batzuk B hizkuntza jakin eta erabiltzeko moduan daude.

(gure kasuan B euskara litzateke eta A gaztelania edo frantsesa).

Elebidunen aldetik B hizkuntzaren erabilera gertaera estokastiko gisa definitu dugu. Azken buru, ez dugu ezagutzen aldeztatik zein den elebidunen portaera linguistikoa. Biztanle bakoitzak eta guztien artean momentu jakinetan hizkuntza harremanen bat gerta daitekeela suposatzen badugu, orduan B hizkuntzaren erabilera maila elebidunen proportzioaren funtzio zuzena izaten da.

Hortaz, kontuan izan behar dugu, batetik ukipen egoeran gaudela eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, euskara egoera jakin batzuetan erabili ahal izango da, eta egoera horien zenbatekoa B hizkuntzaren hiztunen (alegia, euskaldunen) proportzioaren arabera izango da. Gogoan izan erabiltzeko

aukeraz ari garela, aukera potentzialaz, gero beste gauza bat da zer hizkuntza jokaera duten elebidun horiek, baina aukerak zenbat izango diren kalkulatu dezakegu.

### Probabilitatea:

Zein da B hizkuntzako 2 hiztunen arteko elkarrizketa bat gertatzeko probabilitatea?

$$PR_{BB} = e_B \cdot e_B = e_B^2 \quad \text{Non, } e_B \text{ euskal hiztunen proportzioa den (0tik 1era)}$$

Demagun, adibidez, %55a euskalduna den herri batean garela. Bertako bi biztanle (edozein) kalean elkartzen badira, zenbatekoa da biak euskaldunak izateko probabilitatea?

$$PR_2 = 0,55 \cdot 0,55 = 0,302 \text{ edota } \% 30,2$$

Baina, noski, kalean ematen diren elkarrizketak ez dira beti bi pertsonen artekoak izaten: bikoteen, hirukoteen, laukoteen eta hiztun talde handiagoen arteko elkarrizketak ere eman daitezke. Eta zenbatekoa da hirukote bat kalean elkartuta elkarrizketa euskaraz izateko probabilitatea, alegia; zenbatekoa da hiru hiztun horiek euskaldunak izateko probabilitatea? (lehenengo adibide bera erabiliz);

$$PR_3 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,166 \quad \text{alegia } \%16,6$$

Eta hirukotea izan beharrean, laukotea bada, probabilitatea oraindik eta gehiago gutxitzen da:

$$PR_4 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,091 \quad ; \quad \%9,1$$

Eta probabilitatea gero eta txikiagoa da taldea handitu ahala. Txillardegiren hitzetan: “*talde handietan (n =4,5,6,...), B hizkuntzaren erabilerak erritmo esponontzial batean egiten du ihes*”. Eta errealitatean zenbateko taldetan ematen dira elkarrizketak? Orain arte Euskal Herri mailan egindako Kale Erabilera Neurketen informazioa erabil dezagun horretarako:

### Bikote, hirukote eta laukoteen proportzioa:

EKBk 1993 eta 1997ko neurraldian solaskide kopurua behatu zuen. Hau da, behatutako elkar hizketak bikoteetan, hirukoteetan, laukoteetan, boskoteetan edo talde handiagoetan gertatzen zirenen arabera, bikote, hirukote, laukote, boskote,... kopuruak zenbatu eta haien artean zeintzuk egiten zuten euskaraz zehaztu ere.

Bi neurketaldi horietan solaskide kopuruaz, guk  $w_1$  pisu estatistikoak deitutakoaz, jasotako datuetatik abiatuz, laukoteetara mugatu dugu hiztun taldeen tamainaren eragina eta  $w_2$ ,  $w_3$  eta  $w_4$  pisu estatistikoak balio finkotzat jo. Horrela, batenaz beste bikote, hirukote eta laukoteen pisuak ondorengoak finkatu ditugu:

$$w_2 = 0.5488$$

$$w_3 = 0.2862$$

$$w_4 = 0.1650$$

Beraz, kalean behatutakotik ondorioztatu dugu lau hiztunetik gorako taldeen arteko elkarriketak oso gutxitan gertatzen direla (talde handiagoetan normalki ez da elkarriketa bakarra egoten, gehiago baizik). Bestalde, orain badakigu bikote, hirukote eta laukoteen pisua zenbatekoa den eta proportzio hori gure kalkuluetan finkotzat hartuko dugu.


Horrela ba, probabilitate mailan, euskarazko elkarriketak gerta daitezkeen dagoen aukera (berriz ere  $e_B$  herriko euskaldunen proportzioa izanik) hau izango da:

$$PR_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$

Baina, noski, gogoan izan hasieran aipatu duguna: ukipen egoeran gaudela eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, Txillardegik dioskunez: “*B –ren erabilera eman dadin erabat beharrezkoa den baldintza bakarra da elebidunak, horretara beharturik ez egon arren, leialtasunez, beraien artean B erabiltzen jarraitzea (lasai-lasai erabil baitezakete A beraien artean ere)*”.

Orain arteko urratsetan, elebidunen proportzio jakin bat izanik, hiztunen artean euskarazko elkarriketak eman daitezkeen zenbat aukera ditugun kalkulatu dugu. Baina, jakina, mila arrazoi ezberdin tarteko, gerta daiteke euskaldunen arteko elkarriketak erdaraz izatea. Beharrezko ez izanik ere euskaraz egite hori Txillardegik hizkuntza leialtasun bezala izendatu du ( $m_B$ ).

Erabilera maila hiru osagaien funtzio zuzena izango litzateke, elebidunen proportzioa ( $e_x$ ), mintzakide taldearen tamaina edo solaskide kopurua erabilera askean ( $w_i$ ) eta hizkuntza gutxiagotuarekiko leialtasuna ( $m_B$ ). Horrela, erabilera maila kalkulatzeko formula ondorengoa izango litzateke.



Formula honetatik abiatuta, erabilera isotropiakoa (edo espero daitekeena) kalkulatzeko  $m=1$  dela suposatuko dugu, alegia, euskara dakitenen arteko elkarriketak ematen direnean beti euskaraz direla eta egoera isotropiakoa dela. Formula, hortaz:

$$P_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$



## Azken oharrak: ISOTROPIA / ANISOTROPIA eta KONPAKTAZIOA:

Probabilitateak kalkulatzeko garaian, B hizkuntzaren ageriko erabilera zorizko gertaeratzat jo dugu. Nonahi eta noiznahi ager daitekeen jazoera dela esan nahi dugu. Gure eredu eredu estokastikoa dela esaterakoan, B hizkuntzaren erabilerari buruzko aurriritzi guztiak bazterten ditugula esan gura dugu, zuzenak zein okerrak, ez dugu aurriritzi bakar bat onartzen. Esaten dugu, B hizkuntzaren erabilera, elebidunak tarteko direlarik, gertaera probablea dela, besterik ez. Orokorrean, kontrako frogatu ezean, gizartea linguistikoki isotropiakoa da; B hizkuntzaren erabilera, printzipioz, elebidunen proportzioaren funtzio zuzena da.

Orain arteko urratsetan gizarteko egoera isotropiakotzat hartu dugu, hortaz: alegia, suposatu dugu edozein hitzunik beste edozeinekin hitz egiteko probabilitatea duela.

Dena den, J.L. Alvarez Enparantzak eta X. Isasik egindako azterketetan ikusi da herri askotan hori ez dela horrela. Neurketak eginda, kasu batzuetan m-ren balioa 1 baino handiagoa lortzen zen neurketaren emaitza errealak gorago azaldu dugun formularen sartuta, eta hori estatistikoki onartezina da (leialtasuna %100ekoa baino handiagoa izatea suposatuko luke). Txillardegiren hitzetan "Neurketen emaitzak (mota guztietako herrietan behin eta berriz errepikatuak) soilik uler zitezkeen A hizkuntzako elebazarren kopuru handi bat hitzun elebidunekin harremanetan ez zegoela suposatuz. A hizkuntzako elebazarren isolamentu linguistikoa honek B hizkuntzaren erabilera hobetzen du"

"Horrek behartu gintuen isotropia linguistikoa hipotesia alde batera uztera. Euskal Herrian ez da isotropia hori ematen"

Horrek esan nahi du nolabait gure herrietan bi sare edo komunitate ezberdin daudela (euskarazkoa eta erdarazkoa) eta bateko zein besteko kideen artean harremanak izateko aukera ez dela estatistikoki askea, ausazkoa, guk hasieran suposatu dugun bezala. Beste modu batean esanda, hitzun bakoitzak bere sareko kideekin maizago ditugula harremanak beste sarekoekin baino.

Errealitate honetaz jabetzeak eraman zituen J.L. Alvarez Enparantza eta X. Isasi eredu matematikoa garapenean urrats berriak ematera. Besteak beste, "gizarteratze tasa" (g) kontzeptua erabili dute, aipatu bi sareen arteko integrazio maila deskribatzeko.

Gorago esan bezala, neurketen emaitzetako bat izan da ohartzea badagoela A hizkuntzako elebazarren proportzio bat ez duena elebidunekin harremanik izaten.  $g=0$  izango da inolako harremanik ez dagoenean (alegia, erdaldunen eta euskaldunen sareak bata besteagandik erabat berezita bizi direnean, harremanik gabe) eta  $g=1$  izango da herriko A elebazar guztiak elebidunen sarean erabat integratuta dauden kasuetan (kasu honetan sare bakarrean leudeke guztiak, elebakarrak eta elebidunak).

Pentsatuko duzue, kasu errealik gehienak mutur batean zein bestean baino, bien artean kokatzen dira. Horrela, hemen aipatu ditugunez gain beste formula batzuk ere erabilia, kaleko erabilera neurtuta Txillardegiren eredu iristen da komunitate baten leialtasuna (m) eta gizarteratze tasa (g) zehaztera. Azken honek, nolabait Txepetx-ek definituriko euskaldungoaren konpaktazioa kontzeptuaren antzeko zerbait adierazten digu.

Dena den, Kale Erabileraren neurketa egin dugun honetan leialtasun eta konpaktazio kalkulurik egin ez dugunez, oraingoan kontzeptu hauen aipamena baino ez dugu egin nahi, interesa duen oro hasieran aipatu iturrietara jotzera gonbidatuz.

Ikusi dugu, hortaz, nola kalkula daitekeen erabilera isotropiakoa herri batean euskaldunen proportzioa zenbatekoa den jakinda. Gerora ikusi dugu nola praktikan Euskal Herrian ez den egoera isotropiakoa ematen, eta gizarteratze tasa ere kontuan hartu behar dugun.

Dena den, erabilera isotropiakoa oso erabilgarria zaigu, herrian neurtu dugun erabilera errealaren emaitzak altuak edo baxuak diren baloratu ahal izateko erreferentzia teoriko bat ematen digulako. Eta, horretarakoxe erabili dugu guk erabilera isotropiakoa txosten honetan.

## 7.2 Neurketa arauak eta oharrak

### Zer neurtu behar da?

Kalean, eta kalean soilik dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegiak, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratzen dira.

### Neurketa, ez inkesta:

Kalean goazela jendea ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntza hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen. Ez galdetu, entzun egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso taulan, jendea ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

### Neurtzaileak:

Neurketa neurtzaile bat eta neurtzen den herriko laguntzaile baten artean egiten da. Neurtzailea datu jasoketa modu egokian egiten dakien pertsona da, behatzen den kasu bakoitzaren berezitasunak fitxan nola bete behar diren jakin behar du (sexua, haurren presentzia, adin taldeak,...). Laguntzaileak, neurtzailea aurrez finkatutako ibilbidetik gidatuko du. Horrez gain, bikoteka lan egiteak beste alde on batzuk dauzka:

- Biren artean askoz hobeki disimulatzen da, eta oso inportantea da saiatzeko inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke eta : isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...
- Atseginagoa da bi orduz beste norbaitekin neurtzen aritzea, bakarrik jardutea baino.

### Ibilbidea :

Bikote bakoitzak ibilbide jakin bat eduki behar du finkaturik neurketa egin aurretik. Ibilbide hori zein izango den Soziolinguistika Klusterreko teknikaria eta herriko arduradunen artean finkatuko da. Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdigunean (erdigunea zentzu zabalean ulertuta). Ibilbideak inguru ezberdinak zeharkatzea komeni da: erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.

### Datuak nola jaso:

Datuak idazteko eranskinean doan eredu erabiliko duzue, eta bertan ageri den moduan idaztea komeni da, hots, neurtutako lagun bakoitzeko makilatxo bat jarritz.

2006ko EHko kale erabileraren neurketatik aurrera, neurketa egiteko fitxa bakarra erabiltzen da. Fitxan lau datu hartzen dira kontutan:

1. Hizkuntza: hiru zutabe nagusi ditugu: euskara, frantsesa / gaztelera eta beste hizkuntzak.
2. Adin taldea: behin elkarrizketa hizkuntza zehaztuta adin taldea zehaztu behar da: haurrak (14 urte bitartean), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta zaharrak (65 urtetik gorakoak). Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. Neurtzen dugun taldearen osaera: behatutako taldea adin talde bereko kideez osaturik dagoen ala ez apuntatuko dugu. Eta ez badira denak adin talde bereko multzoan sartzen, tartean haurrak present dauden ala ez jasoko dugu eta present badira mintzakide diren ala ez.
4. Generoa: bukatzeko mintzakideen sexua jasoko dugu.

### Neurtu horrela egiten da:

Neurketa nola egiten den azaltzeko hiru adibide jarriko ditugu:

- 1.- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten
  - 1. pausoa: Euskaraz zutabe nagusian (hizkuntza),
  - 2. pausoa: adin talde bereko zutabearen (adin talde berekoak )
  - 3. pausoa: haurren atalean (adin taldea)
  - 4. pausoa: nesketan (emakumea) apuntatzen dugu makilatxo bat eta gizonezkoetan beste bat (sexua).
- 2.- Senar emazteak erdaraz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe:
  - 1. pausoa: frantsesa/gaztelera zutabearen (hizkuntza)
  - 2. pausoa: adin talde ezberdinekoak zutabearen, haurrak ez dira mintzakide azpi multzoan.
  - 3.pausoa: helduetan (adin taldea)
  - 4. pausoa: gizonezkoetan (sexua) makilatxo 1 jartzen da, eta emakumezkoetan beste bat (sexua).
  - 5. pausoa: haurretako emakumezkoen zutabearen makilatxo bat jarriko dugu (alabarena)
  - 6. pausoa: gazteen gizonezkoen zutabearen makilatxo bat jarriko dugu (semearena).
- 3.- Senar emazteak, 5 urteko alabarekin eta 16 urteko semearekin doaz kaletik, ama alabari euskaraz zuzentzen ari zaio:
  - 1. pausoa: euskara zutabearen (hizkuntza)
  - 2. pausoa: adin talde ezberdinekoak zutabearen, haurrak mintzakide azpi multzoan
  - 3.pausoa: helduetan (adin taldea)
  - 4. pausoa: gizonezkoetan (sexua) makilatxo 1 jartzen da, eta emakumezkoetan beste bat (sexua).
  - 5. pausoa: haurretako emakumezkoen zutabearen makilatxo bat jarriko dugu (alabarena)
  - 6. pausoa: gazteen gizonezkoen zutabearen makilatxo bat jarriko dugu (semearena).

Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean normalean bat entzungo dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan guk fitxan lau lagun entzun ditugula jarriko dugu, hau da, lau makilatxo, hizketan zihoan bakar horren hizkuntzan. Tartean haur bat hitz egiten ari bada edo berari zuzenduta badago elkarrizketa haurrak mintzakide zutabearen jarriko ditugu makilatxoak dagokien azpimultzoan (adin taldearen eta sexuaren arabera).

Fitxaren atzeko partean “beste hizkuntzak” jasotzen dira, alegia, Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu atal honetan sartuko ditugu behatutako pertsonak. Ipar Euskal Herrian “beste hizkuntzak” atalean euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzak sartuko ditugu. Atal honen ondoan “bakarrizketak” neurtzen dituen atala dugu. Bertan, eskuko telefonoz hitz egiten ari direnak eta bestelakoak (animaliekin, atarrietako interfonoz, etab.) apuntatuko ditugu. Atal horretan, jakina, elkarrizketa bakoitzeko marratxo bakarra egingo dugu, mintzakide bakarra entzun (eta ikusiko) baitugu.

Fitxaren laukitxo bat betetzen denean beste fitxa batera pasatu behar da. Fitxa bat baino gehiago erabiltzen bada zenbakitu behar dira fitxak eta behaketaren bukaeran datu guztiak jaso behar dira fitxa bakar batean. Guri azken fitxa hau pasatuko diguzu. Neurketa bakoitzean fitxa berri bat erabili behar da. Beste ohar batzuk:

- Ibilbidean zehar pertsona bera [neurraldi eta elkarrizketa berean] ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berdinarekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak berdinak izan arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- Neurtzaileekin hitz egiten dutenei ez zaie neurtuko.
- Dudazko kasuak ez jaso, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer : ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari ; gurea neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.

#### **Azken oharrak:**

Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, beti egia jarri. Euskaltzaleon joera psikologikoa izaten da errealitateak adierazten duena baino euskara gehiago aditu nahi izatea. Alferrik gabilta ordea, geure buruak engainatzen: azterketa hau euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan. Taberna, denda eta bestelako leku itxien barnealdeetan neurtzerik ez dagoen arren, haien sarrera-irteeretan bai. Hori oso kontutan hartzekoa izan daiteke euria eginez gero batez ere.

## 7.3 Fitxak



**HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA**

		EUSKARAZ				FRANTSESEZ / GAZTELERAZ			
		Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Ainekoak (65... urte)	Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Ainekoak (65... urte)
<b>ADIN TALDE BEREKOAK</b>		EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		Orotara				Orotara			
<b>ADIN TALDE EZBERDINEKOAK</b>	Haurrik ez	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		Orotara				Orotara			
<b>ADIN TALDE EZBERDINEKOAK</b>	Haurrak ez dira mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		Orotara				Orotara			
<b>ADIN TALDE EZBERDINEKOAK</b>	Haurrak mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		Orotara				Orotara			
<b>Orotara</b>									

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA · 20140 ANDOAIN · Tel: 943 59 25 56 · Fax: 943 304151 · kluster@soziolinguiстика.org



HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

		BESTE HIZKUNTZAK				BAKARRIZKETAK			
		Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65-... urte)	Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65-... urte)
ADIN TALDE BEREKOAK		EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
		GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
		Orotara				Orotara			
ADIN TALDE EZBERDINEKOAK	Haurrik ez	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
		GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
		Orotara				Orotara			
ADIN TALDE EZBERDINEKOAK	Haurrak ez dira mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
		GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
		Orotara				Orotara			
ADIN TALDE EZBERDINEKOAK	Haurrak mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
		GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
		Orotara				Orotara			

OHARRAK: (ekitaldi berezi bat egon bada, elurtea...)

Oharra: adinkako eta taldekako emaitzen batua egin, kontuan hartu biak kopuru berdina eman behar dutela.

Herria: ..... Ibilbidea: ..... Eguna: ..... Ordua: .....

1. Neurtzailearen izena (k): ..... Tel.: ..... Fitxaren zbkia: .....

2. Neurtzailearen izena (k): ..... Tel.: .....

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA · 20140 ANDOAIN · Tel.: 943 59 25 56 · Fax: 943 304151 · kluster@soziolinguistika.org



## 7.4 Datu nagusien irakurketa (laburpena)

Hemen aurkezten ditugun datuak, 2008ko otsaila eta martxoa bitartean Aretxabaletan egindako Kale Erabileraren Neurketan jasotako datuak dira. Neurketa honek, Aretxabaletan egiten den lehenengoa ez denez, 1990. urtetik hona egindako beste zortzietan bildutakoekin alderatu ditzakegun datuak eman dizkigu, hemendik abiatuta dagokion interpretazioa egin ahal izateko.

Hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak dira (errodakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen dizkizue. Horretarako, gainera, oinarri metodologiko sendoa dugu. Soziolinguistika Klusterra (aurretik SEI Elkartea) arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta, horrez gain, 70 bat udalerritan ere egin ditugu honen antzeko neurketak.

Jarraian dituzue neurketaren datu nagusiak deskribatuta:

1) Erabilera indizea % 43.9koa da. Hau da, kalean behatu diren 100 elkarrizketetatik 44 izan dira euskaraz. 1990etik 2008ra egindako 9 neurketetan gora-behera batzuk egon diren arren, orokorrean mantendu egin da euskararen erabilera herrian (0,3 puntu igo da). Azken neurketatik hona egondako aldaketa ere txikia dela esan liteke (0,7 puntuko igoera).

- Herrian neurtutako bi ibilbideetan euskararen erabilera maila antzekoa jaso da (%45 inguru). Azpimarratzeko modukoa da, bestalde, gau giroan herriko batez bestekoa baino erabilera maila altuagoa jaso dela (%64) Asteleheneko azokan neurtutakoaren datua, ordea, herriko erabilera orokorraren azpitik kokatzen da nabarmen (%25).

2) Adin-taldeka, Aretxabaletan neurtutakoak bi talde handitan bereizi litezke. Haur eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak alde batetik (% 53.7 eta 51.7 hurrenez hurren). Eta beste aldetik, helduen eta adinekoen adin taldeak kokatzen dira (%38.9 eta 39.3).

## Bilakaera: 1990-2008

- Haurren artean, bilakaera negatiboa izan da eta erabileraren jaitsiera hau bereziki areagotu da 2001eko neurketatik hona (13 puntuko jaitsiera). Adin talde euskaldunena izaten jarraitzen duen arren, kontuan hartzekoa da norabide hau eta aurrerantzean, beraz, arretaz jarraitu beharrekoa.
- Gazteengan, berriz, 2000tik 2005era neurtutako joera negatiboa zuzendu eta azken neurketan baino 10 puntu altuagoa da 2008an jasotako datua, haurren erabilera mailatik gertu kokatzeraino hazi delarik.
- Helduen taldeak, adin talde erdaldunena izaten jarraitzen badu ere, bai azken 18 urteei begiratuta (+3,3) eta baita azken 5 urteei erreparatuta ere (+5) joera gorakorrari eusten dio.
- Azkenik, adinekoen datuak jaitsiera jasan du azken neurketatik hona (-1,1). Euskal Herri mailan, ezagutzaren bilakaerari lotuta doan joera bati erantzuten diola uler liteke hemendik.

3) Sexua: gizonezkoek emakumezkoek baino joera handixeagoa agertu dute euskaraz hitz egiteko (2,3 puntuko aldea). Azken lau neurketetan hala izan da, nahiz eta aldea handiagoa zen 2005ekoan (5,8).

4) Haurren presentzia eragile garrantzitsua da, haurrak presente izanik erabilera nabarmen hazten baita. Haurrak mintzakide direnean (elkarrizketan zuzenean parte hartzean) nabaritzen da alderik handiena (%70eko erabilera), baina haurren presentzia soilak ere eragina du gainontzeko hiztunen erabileran (%53). Gainera, azken neurketa honetan haurren eragin hau aurrekoetan baino nabarmenagoa izan da.

---